

Udalak bere barne antolaketa egokitu du, eraginkortasun eta koordinazio handiagoa izateko

- **Azken hilabeteetan Udalaren egitura aztertu eta hau eraberritzeko prozesua garatu du.**
- **Hamar batzorde informatzaile izatetik, hiru batzorde izatera igaroko da Udala**

Andoainen, 24-09-25.- Garai berriek errezeta berriak eskatzen dituzte. Herritarrek euren egunerokoa oparagoa eta errazagoa egingo duten ereduak eta sistemak behar dituzte, eta Udalak horretarako mekanismo egokiak eskaini behar ditu.

Bide horretan sakondu asmoz, azken urteetako Udalaren barne funtzionamenduaren inguruko azterketa gauzatu eta gaur egungo beharretara egokitzeko prozesua egin du Udalak azken hilabete hauetan. Eraginkortasun handiagoa eta sailen arteko koordinazio zehatzagoa edukitzea izan dira prozesuan zehar bilatu diren helburuak.

Hala, Udalaren funtzionamendua eraberritzeko eta transformatzeko prozesua hasi genuen, eta hilabete honetan emango du bere lehen emaitza garrantzitsua: Andoaingo Udal eredu berria.

Gauzak horrela, hamar batzorde informatzailearen osaketatik, hiru batzorderen egiturara igaroko da Andoaingo Udala:

HERRITARRAK

Bertan landuko dira, besteak beste, Euskara, Berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak, Kirola, Kultura, edota Partaidetzari loturiko gaiak

LURRALDEA

Hemen hitz egingo da Hirigintza, Etxebizitza, Ingurumena, Herri lan, herritarren segurtasun eta tankerako proposamenez

ANTOLAKETA

Ezinbesteko batzordea izango da hau zerbitzu publikoak eman ahal izateko euskarri legal, ekonomiko-finantzario eta administratiboak eskuratze aldera.

Andoain bizitzeko herri egingo genuela promes egin genuen, eta antolaketa berri honek horren bidean urrats garrantzitsua emango du. Hau da Andoaingo udal eredu berria.

